



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/11/

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak aho batez onetsi dau irabazi asmorik bako erakundeen zerga araubidearen ganeko Foru Arau proiektua, benetako bardintasunaren alde eta genero indarkeriaren kontra behar egiten daben alkarteak beren beregi aitatzeko

Irabazi asmorik bako erakundeen eta Mezenasgoaren Zerga-pizgarrien araubide fiskalari buruzko Foru Arau barriaren artikuluen eztabaidak eta bozketak hartu dau gaur goizean egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen bileraren parte handia. Bertara José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Diputatua etorri da EH Bilduk eskatuta. Arauzko proiektuaren azterketa luzatu egin da, batzarretako taldeek, Podemosek eta EH Bilduk, batez be, 60 zuzenketa-eske baino gehiago aurkeztu dituelako. Izan be, talde bi horreek 36 eta 25 zuzenketa-eske aurkeztu ditue, hurrenez hurren.

Zuzenketa-eske gehienak onartu ez diran arren, azpimarratu behar da talde guztiek (Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Misto) aho batez onartu dabela Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako 5. artikuluaen aurreko zuzenketa-eskea. Bertan, irabazi asmorik bako moduan onartuak izateko erakundeek euki behar dituen helburuen artean, honeek sartzeta onetsi da: “emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasuna, indarkeria matxistea baztertzea eta, modu berezian, indarkeriaren biktima diran emakumeei laguntzea bilatzen daben erakundeak”.

Modu berean, emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasunaren alde behar egiten daben alkarteen jarduerari lehentasuna emoteko EH Bilduk eta Podemos Bizkaia taldeek aurkeztutako zuzenketa-eske bik talde gehienen aldeko eretxia jaso dabe. Ekain Ricok (Euskal Sozialistak) iragarri dauenez, zuzenketa-eske transakzionala aurkeztuko dabe Euzko Abertzaleak taldeagaz batera, zuzenketa-eske bi horreek sartzeko.

Podemos eta EH Bildu taldeek aurkeztutako ganerako zuzenketa-eskeak eta Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako bat ez dira onetsi. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, beste horrenbeste zuzenketa-tagaz eta oinarritzko akats teknikogaz erlazionauta, batera aurkeztutako hiru zuzenketa-eskeak, barriz, onetsi egin dira. Aitatutako aldaketa horreekaz, Irabazi asmorik bako erakundeen eta Mezenasgoaren Zerga-pizgarrien araubide fiskalari buruzko Foru Arau barria seguruenez Gernikako Batzarretxean egingo dan hurrengo Osokoan onetsiko da.

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasak arautzen dituan Foru Arau Proiektuaren eta Podemos Bizkaia taldeak arauzko testu horretako hainbat artikuluren kontra aurkeztu dituan 5 zuzenketa-eskeen ganean be eztabaidau dau.

11 boto batu dituen Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa taldeen aldeko botoakaz Foru Arau horren artikulua onetsi dira. Bertan hainbat aldaketa sartu dira. Alde batetik, Podemos Bizkaia taldeak 8. eta 13. Artikuluen ganean aurkeztutako zuzenketa-eske bi, jatorrizko testuan aldaketak sartzen dituenak, 18 eta 41 urte arteko gazteei makineriaren erregistroarengaitik edo abereak identifiketeagaitik apliketan jakezan zergak eta grabamenak murrizteko.

Zuzenketa-eskeak Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa taldeen aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz onetsi dira. Arauzko proiektuan Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztutako zuzenketa-eske bat be sartu da, gai tekniko txiki bat zuzentzeko, 28. artikuluan akatsa eukan atal bat egoalako. Batzordearen on ikusiaren ostean, Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailaren tasak arautzen dituan Foru Arau Proiektua Osokoa bozkatuko da Batzar Nagusietan hilebete honen bukaeran.

BBK Fundazioaren patronatua

Eguneko gai zerrendako azkenengo puntuan, Arantxa Urkaregik EH Bildu taldearen izenean defendidu dauen Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatu eta bozkatu da. Urkaregik defendidu dauenez, beharrezkoa da Bizkaiko Batzar Nagusiek BBK Fundazioaren Patronatua barriztetako prozesuan parte hartzea, patroituraren eta ordezkoren izendapenerako proposamenak aurkeztuz BBK Banku Fundazioaren Estatutuetao C eta D taldeetarako. “Arauz Besteko Proposamen honen helburua patronatuari gardentasuna emotea eta Bizkaiko gizartearen aniztasuna erakustea da”.

Arturo Aldecoa (Taldea Mistoa) ekimenaren alde agertu da, partaidetzak “Batzarrei ospe gehiago emongo leuskiela” esanez. Javier Ruizek (Bizkaiko Taldea Popularra), bere aldetik, “Bizkaiko Foru Aldundia BBKko erabateko kide dala” gogoratuazo dau, eta “geure burua bertako Fundazioan parte hartzera konbidetea intromisinoa dala” gehitu dau.

Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia) bere taldearen aldeko botoa iragarri dau, “Batzar Nagusiak eta alderdi politikoak BBK Fundazioan inpliketea garrantzitsua dala” esanez.

Ekain Ricok (Euskal Sozialistak) esan dauenez, proposamena “atzerapausoa da lege barrien bitartez bultzatu dan aurrezki kutxen despolitizazioan”. Euzko Abertzaleak taldearen izenean, Jesús Lekerikabeaskoak gehitu dau, baita be, Bankuen eta Aurrezki Kutxen lege barriaren helburu nagusia “finantza sistemaren despolitizazioa” izan dala, eta “aniztasuna eta akordioa ez dirala beti EH Bilduren ordezkartzatik pasetan” gehitu dau.

Proposamena ez da onartu, EH Bilduren, Podemosen eta Taldea Mistoaren aldeko 6 botoak, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen kontrako 9ak eta Bizkaiko Taldea Popularraren abstentzinoa jaso ditualako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
11/03/2019

La Comisión de Economía y Hacienda modifica por unanimidad la nueva Norma Foral de fiscalidad de entidades sin ánimo de lucro para citar expresamente a las asociaciones que trabajan por la igualdad y en contra de la violencia de género

El debate y votación del articulado del Proyecto de Norma Foral de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo ha ocupado buena parte de la reunión de la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia, celebrada esta mañana y en la que ha comparecido el Diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, a petición de EH Bildu. El análisis de este proyecto normativo se ha alargado por las más de 60 enmiendas presentadas por los diferentes grupos junteros, especialmente por Podemos y EH Bildu, quienes habían propuesto un total de 36 y 25 modificaciones, respectivamente.

Aunque la mayoría de las enmiendas han sido rechazadas, hay que destacar la aprobación por unanimidad de todos los grupos (Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto) de una enmienda al artículo 5º presentada por Podemos Bizkaia que añade, en el capítulo de los fines de las entidades para ser consideradas sin ánimo de lucro, aquellas que persigan el “fomento de la igualdad real de mujeres y hombre, erradicación de las violencias machistas y en especial apoyar a las mujeres víctimas de las mismas”.

Igualmente, sendas enmiendas presentadas, respectivamente, por EH Bildu y Podemos Bizkaia, para calificar de prioritaria la actividad de asociaciones que trabajan por la igualdad de mujeres y hombres han encontrado el respaldo de la mayoría de los grupos. Ekain Rico (Socialistas Vascos) ha anunciado que presentarán una enmienda transaccional junto con el grupo juntero Nacionalistas Vascos para incorporar estas dos enmiendas.

El resto de las enmiendas presentadas por Podemos y EH Bildu así como una presentada por el Grupo Popular Vizcaíno han sido rechazadas. Sí se han aprobado, en cambio, tres enmiendas conjuntas introducidas por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos referidas a otras tantas correcciones y errores técnicos básicos. Con las citadas modificaciones, previsiblemente se aprobará esta nueva Norma Foral de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo en el próximo Pleno que se celebrará en la Casa de Juntas de Gernika.

La Comisión de Economía y Hacienda ha debatido también sobre el Proyecto de Norma Foral que regula las tasas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia y las 5 enmiendas presentadas por el grupo Podemos Bizkaia contra varios artículos de este texto normativo.

Con los votos favorables de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto, que han sumado 11 puntos, se han ido aprobando los diferentes artículos de esta Norma Foral a la que se han incorporado varias modificaciones.

Por un lado, dos enmiendas de Podemos Bizkaia a los artículos 8º y 13º que introducen cambios en el texto original para reducir las tasas y gravámenes en registro de maquinaria o identificación de ganado para los jóvenes de 18 a 41 años. Las enmiendas han quedado aprobadas con los votos a favor de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto y la abstención de EH Bildu.

Al proyecto normativo se ha incorporado también una enmienda conjunta presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos conjuntamente para resolver una simple cuestión técnica, al aparecer en el artículo 28º un apartado erróneo. Tras el visto bueno de la Comisión, la Norma Foral que regula las tasas del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral se votará en Pleno en las Juntas Generales a finales de este mes.

Patronato de la Fundación BBK

En el último punto del orden del día, se ha debatido y votado una Proposición No de Norma defendida por Arantxa Urkaregi, en nombre de su grupo, EH Bildu. Urkaregi ha defendido la necesidad de que las Juntas Generales de Bizkaia participen en el proceso de renovación del Patronato de la Fundación BBK, proponiendo nombramientos de patronos titulares y suplentes para los grupos C y D de los Estatutos de la Fundación Bancaria BBK. “El objetivo es dotar al patronato de transparencia y que refleje la pluralidad de la sociedad de Bizkaia”.

Arturo Aldecoa (grupo Mixto) se ha mostrado favorable a la iniciativa señalando que la participación “daría más prestigio a las Juntas”. Por su parte, Javier Ruiz (Grupo Popular Vizcaíno) ha recordado que “la Diputación de Bizkaia es miembro nato de la BBK” para añadir que “autoinvitarnos a participar en su Fundación es una intromisión”.

Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) ha anunciado el voto positivo de su grupo destacando que “es importante implicar al conjunto de las Juntas Generales y de los partidos políticos” en la Fundación BBK.

Ekain Rico (Socialistas Vascos) ha señalado que la propuesta “es un paso atrás en la despolitización de las cajas de ahorro que han impulsado las nuevas leyes”. En representación de Nacionalistas Vascos, Jesús Lekerikabeaskoa, ha aludido también a que el principal objetivo de la nueva ley de Bancos y Cajas de Ahorro fue “la despolitización del sistema financiero”, añadiendo que “la pluralidad y el acuerdo no siempre pasan por la representación de EH Bildu”.

La propuesta no ha salido adelante al contar con los 6 votos a favor de Eh Bildu, Podemos y Grupo Mixto frente a los 9 en contra de Nacionalistas y Socialistas Vascos y la abstención del Grupo Popular Vizcaíno.